

Balmasedako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016

Balmasedako Udalaren Plan Estrategikoak hamar esparru hauek bereizten ditu:

1. Familia transmisioa
2. Euskalduntzea-prestakuntza
3. Irakaskuntza
4. Administrazioa
5. Lan mundua
6. Aisia
7. Kirola
8. Kulturgintza
9. Komunikabideak
10. Teknologia berriak

Urteroko Kudeaketa Planean, esparru bakoitzean bideratuko diren helburuak azaltzen dira, helburuak lortzeko behar beharrezkoak diren estrategiekin batera (sentsibilizazioa, komunikazioa, laguntza ekonomikoa eta teknikoa...).

Familia transmisioa

Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

Guraso eta aitona-amonengan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: haurrek egindako pegatinak, triptikoak...

Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia... [Gutunak, disko digitalak, haur-hizkera erakusten duten liburuxkak, egutegiak, "speakup" materiala, autoetako pegatinak, gidak, euskararen "merchandising"-a (amantalak, sukaldeko arbelak...) eta gisakoak]

Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen. [Aurrematrikulazio kanpainak; hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, irratsaioak, liburuxkak...]

Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta. [Euskarazko zinea, pailazoak eta gisakoak]

Euskalduntzea-Prestakuntza

Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu. [Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina eta gisakoak]

Euskara ikasten dabilena saritu: sarrerek zozketatu, eskualdeko egunkari edo aldizkariren batera urtebeteko harpidetza... [Euskarazko hedabideen harpidetzak oparitu: Anboto, Gaztezlulo, Hitza, Berria, Argia, besteak beste]

"Mintzalagun" proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]

Etorri berriei zuzendutako ikastaro bereziak antolatu, metodologia egokia erabilita. [AISA harrera-ikastaroa HABEk diruz laguntzen du]

Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia...

Irakaskuntza

Euskarazko ikastereduak sustatu

DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak... [Matrikulazio kanpainak, besteak beste]

Gurasogai eta guraso berriei banan-banako informazioa eman 0-3 adin taldean udalerrian dauden zerbitzuez.

Eskola-orduetan euskararen erabilera areagotu

Euskara sustatzeko programa bereziak gauzatu (ahozkotasuna, bertsolaritza...)

Lan mundua

Lan munduan euskararen erabilera handitu.

Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarrizketak egin, eta azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden...
Enpresa eta sindikatuarekin banan banako konpromisoak bilatu euskararen erabilera plana egin eta partaide izateko.
Kontratazioak egiterakoan euskaraz jakitea kontutan hartzea.

Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

Herritarrengan eta merkatarari edo ostalariengan eragin herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...
Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez...
Banan-banako elkarrizketak egin merkatarari eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabilera duen eraginaz.
Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoak itzulpenetarako... [Euskararen ordenantzen berri ematea, besteak beste]
Negozioetako jabeek jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...

Administrazioa

Erabilera Plana

Aisia

Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) ["Euskera agoan" programa, eta gisakoak].

Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu.

Helduentzako aisialdi programa garatu.

Kirola

Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

Herriko kiroldegietako haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

Laguntzak bideratu kirol jardueretan euskaraz dakiten begiraleen presentzia bermatzeko: begiraleen zerrenda, pizgarri ekonomikoak, bitartekaritza...
[Entrenatzaile euskaldunen eskolak eta gisakoak]

Kulturgintza

Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatu: "Euskara zine aretoetara"...

Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...).

Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

Bibliotekak euskarazko liburuz hornitu

Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

Kale neurketak egin.

Komunikabideak

Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatu: emanaldietako sarrerak oparitu...

Udalerri bakoitzaren beharretara egokituko den euskarazko komunikabideen bideragarritasuna aztertu: aldizkari xume bat, web orriaren bitartezko komunikazioa, blogg-ak, sms bidezko albisteak...

Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

Enpresa, merkataria eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko.

Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskarazko komunikabideak lehenetsi.

Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskara lehenetsi.

Teknologia berriak

Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

Euskarazko eskaintza bermatu KZ gunetako ikastaroetan.

Euskarazko blogg-ak sortzea bultzatu.